

## PLAZAN buletina ELKANO 500

### 3. zenbakia

[Eskultura estalia](#) **2**

Agustin Arrieta Urtizberea

[Mundubiraren paradoxak  
500 urte ondoren](#) **4**

Amaia Irazusta Astiazaran

[Biblioteka txokoa](#) **5**

[www.ehu.eus/gipuzkoa](http://www.ehu.eus/gipuzkoa)

Dena prest zegoen 2522ko irailaren 6an. Lurreko balkoi loretsu guztietan banderak haizearen aginduetara kulunkatzen ari ziren. Espaziotik ere ikusiko zuten Lurrekoak jantzitako soinekoa. Ez zen gutxiariko; boladaka kezka beltzak nagusi izan arren, azkenean radarrek detektatu zuten espazio-ontziak zetozela. Bueltan zetozen, 234 heroi bueltan zetozen. Radarrek hori zioten. Halere, bazegoen egonezinik. Radarrek espazio-ontzi bakarra detektatu zuten, 2519ko irailaren 20an bost espazio-ontzik bidaia abiatu bazuten ere.

Espedizioko kapitainaren herrian jarri zuten fokua komunikabide guztiek: kalkuluen arabera, herriko kaitik gertu «eroriko» ziren itsasora espazio-ontziak. Prest zeuden musika-bandak, prest zeuden dantzariak, prest Lurreko koro nagusiak, prest, nola ez, lehendakaria. Dena prest, denak zeruari begira. Jendea kanta eta kanta ari zen, eskuko banderatoak astinduz. Abiatu zireneko irudiak etenik gabe agertzen ziren pantaila erraldoietan: kapitaina ere bertan agertzen zen, serio.

Lehendakaria diskurtso-prestaketan ari zen. Bertan aipatu nahi zuen zein gogorra izan zen seinalea galdu zenean, espazio-ontzien eta Lurrekoaren arteko lotura-haria apurtu zenean. Egunak eta hilabeteak seinalerik gabe. Haatik, itxaropena piztu zuen mezu ahula iritsi zen azkenean: espazio-ontziak gorputz zerutar ezezagun batera iritsiak ziren.

---

**Herriko erdigunean  
zegoen eskultura  
estalia, kapitainaren  
zain. Lurreko txoko  
guztietara iritsiko zen  
une horren irudia.  
Dantzariak, koroak,  
musika, eta banderak.**

---

Zeruan puntu bat agertu zen:

—Espazio-ontziak hortxe daude!—hainbat ahotatik atera zen.  
—Bakarra dator— beste hainbatetik.

Zeru arat hartan gero eta handiagoa zirudien puntu beltz hari begira zeuden guztiak. Lehendakaria ez. Lehendakaria diskurtsoa irakurtzen ari zen: «...aukera berriak zabaldu dizkiguzue. Gure zerumuga harantzago eraman duzue». Azken hori zen gehien errepikatzen zen esaldia. «Etorkizun argiagoa dakusagu, zuei esker... Baliabide berriak izango ditugu... Irtenbide berriak jarri dizkiguzue begi aurrean...» «Herriak zarete. Eta zuk, kapitainak, hemen duzu zure herria zain, harro dagoen herria, harro gurera ekartzeagatik etorkizun zurraragarria» «Zuek ate berri bat ireki duzue.»

Idazkia irakurri ondorengo unea irudikatzen ari zen lehendakaria: kapitainari eskainitako brontzezko eskultura erraldoia herritar guztien aurrean agerian geratuko zen.

Herriko erdigunean zegoen eskultura estalia, kapitainaren zain. Lurreko txoko guztietara iritsiko zen une horren irudia. Dantzariak, koroak, musika, eta banderak.

Itsasoan zegoen espazio-ontzi bakarra, erreskate-itsasontzia noiz hurbilduko zain. Kaitik zetozen kantak entzuten zituzten herriek.

Banan-banan igo ziren itsasontzira. Bat, bi, hiru... Hamazazpi lagun ziren, hamazazpi bakarrik, pentsatu zuen jendeak. Naufrago itxura zuten guztiek. Zaila zen esatea nor zen nor, bidaia gogorak denak berdindu baitzituen.

Tarte batean jende guztia isilik geratu zen, tristura kolpe baten eraginez.

Baina jendarteak kantari, musikari eta dantzari ekin zien berriro. Eta banderak astintzeari.



2

Oholtzan hamazortzi lagun zeuden,  
«naufagoak» eta lehendakaria.

—Elkano kapitaina?— galdetu zuen  
lehendakariak.

—Elkano kapitaina ez da etorri. Lurrealde  
Berrian geratu da.

—Nola?

—Mezu hau eman digu zuretzat,  
lehendakari jauna.

—Baina...

—Bidaia beldurgarria izan zen, bai joanean  
bai etorreran. Lurrealde Berri ezezagun  
horretara iritsi bezain pronto, gotortu  
ginen, kapitainak aginduta. Badaezpada.  
Eta kapitaina bakarrik ateratzen zen  
gotorlekutik, bertakoekin harremanetan  
jartzeko asmotan. Egunetik egunera,  
gero eta ordu gehiago igarotzen zituen  
gotorlekutik kanpo. Azkenean, Lurrealde  
Berritik irteteko agindu tinkoa eman

zuen: «etxera itzultzeko tenorea da!».  
Halaber, bera bertan geratuko zela  
jakinarazi zigun. Egin zuen azkenekoa  
izan zen bidaiari zegokion informazio  
guztia ezabatu. Ez zuen arrastorik utzi,  
guk kontu dezakegunaz aparte.

Begi guztiek oholtzan zeudenak zituzten  
jomugan.

Lore arteko isiltasuna zama hartzen ari zen  
pixkana.

Lehendakaria harriduraz irekitzen ari zen  
gutun-azala, azalpenak entzun bitartean.  
Aldamenean zegoen eskultura estaliari ere  
begiratzen zion tarteka, nora ezean.

■ Agustín Arrieta Urtizberea  
UPV/EHUko Filosofia irakaslea

# Mundubiraren paradoxak 500 urte ondoren

Bizitza paradoxaz beterik dago eta Elkanoren bidaia ez da salbuespena izan. XVI mendeko itsas espedizio honen helburua espezien uharteekin merkataritza-ibilbideak irekitzea izan zen.

Espainiako koroak ekimen hau finantzatzean, garaian urrea bezala kontsideratuak zeuden espezieak lortzea zen: iltzea, piperbeltza, kanela... Hauek elikagaiak ondu eta plater batzuk ondo kontserbatuta edukitzeko balio zuten, eta gainera, mediku-errezeta askotan eta perfume garestienetan ere erabiltzen ziren.

Espedizioaren nondik norakoak ikustean hau elikagai freskoen gabeziak sortutako amesgaizto luzea izan zela esan dezakegu. Elikagai falta honek tripulatzaile askoren gaixotze eta heriotza eragin zituen. Eskorbutoa mundubiraren etsai nagusia izan zela esan dezakegu.

Hau ikusita, paradoxa dirudi, elikagai bila doazen marinela, bidean elikagai gabeziagatik hiltzea. Hau orain de la 500 urte gertatu bazen ere, honelako paradoxak nonahi aurkitzen ditugu.

Elikagaiak ekoizteko gaitasun handiena dugun unean, munduko gosetea berriro ere gora doala ikusten ari gara. Munduaren erdia gosez hiltzen ari den bitartean, beste erdia elikadura gehiegikeriak sortutako gaixotasunaz hiltzen ari da. Herri askotan bizi baldintza hoberenak ditugun momentuan zoriontasun falta handienak sentitzen garen garaia bizi dugu. Komunikaziorako aurrerakuntza teknologiak urrunena hurbildu eta hurbilenetik urruntzen gaitu.

Egungo pandemiak ere paradoxa bitxiak ekarri dizkigu: Zomorro batek erakutsi digu herriak ez gaudela hain urrun, eta izaki txiki honek munduari bira



---

**Paradoxa dirudi,  
elikagai bila doazen  
marinelak, bidean  
elikagai gabeziagatik  
hiltzea. Hau orain  
de la 500 urte gertatu  
bazen ere, honelako  
paradoxak nonahi  
aurkitzen ditugu.**

---

eman ondoren, herri guztiak «hurbiltzea» lortu du; hala ere, hurbilekoengandik urrundu eta banandu gaitu.

Bizitza paradoxaz beteta dago. Eta Nietzschek zioen bezala: Paradoxa guztien arrelepo, egia guztietaruntz joaten da\*

Ezin dugu Elkanoren zirkunabigazioa espeziekin

merkaturatzeko proiektu soiltzat hartu. Horrek esan nahi du ez garela jabetzen mundubira emateak izan zuen oihartzunaz, eta gaur egun ere irauten duena. Mundubira globalizazioaren lehen urratsa izan zela esan dezakegu. Berreskura dezagun Elkanok hasitako mundubira eta 500 urte beranduago, saia gaitzen kapitainak bere bidaia birbideratu zuen bezala, birbideratu dezagun guk ere globalizazioa, herriak benetan hurbilduz eta guztientzat izan beharko lukeen mundu bat topatuz.

■ Amaia Irazusta Astiazaran  
Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaslea  
Gipuzkoako Esperientzia Geletako Zuzendaria

\* Egileak gaztelaniaz itzulita: A lomos de todas las paradojas se cabalga hacia todas las verdades.

# Biblioteka Txokoa

Getaria, **Juan Sebastian Elkanoren (1476-1526)** jaioterria, Gipuzkoako kostaldeko herri txiki bat da. Marinela gain, badira txakolinaren herriko beste seme-alaba entzutetsu batzuk ere; esaterako, **Cristobal Balentziaga (1895-1972)** moda diseinatzailea. Hain ezagunak ez direnak ere badira getariar aipagarrien artean, banan-banan ikusiko ditugu haietariko batzuk.

**Domingo Bonetxea (1713-1775)**, Elkano bezala, esploratzailea zen. 43 urtez egon zen espainiar armadan, eta Tahiti espainiar inperioaren parte izan zedin saiatu zen. Ez zuen lortu, ordea, eta bertan hil zen 61 urte zituela.

**Jose Frantzisko Iturzaeta (1788-1853)**, berriz, kaligrafoa zen, eta ospe handikoa, gainera. Hain zuzen, Getariako Herri Eskolak bere izena darama. Sinpletasuna zuen gogoko, eta letra etzanari buruzkoak dira bere lanak.

**Pepita Enbil (1918-1994)** zarzuela abeslaria izan zen, sopranoa. Bere senarra Plácido Domingo Ferrer izan zen.

Jarraian, haiei buruzko dokumentazioa, liburutegian eskuragai izango duzuen.

Getaria, localidad natal de **Juan Sebastián Elcano (1476-1526)**, es un pequeño pueblo costero de Gipuzkoa. Además del marinero, hay otros hijos ilustres del pueblo del txakoli, como el diseñador de moda **Cristóbal Balenciaga (1895-1972)**. Entre los getariarras más destacados se encuentran también los menos conocidos, de los cuales veremos algunos de ellos uno por uno.


**Domingo Bonechea (1713-1775)**, como Elcano, era explorador. Estuvo 43 años en el ejército español e intentó que Tahití formara parte del imperio español. Sin embargo, no lo consiguió y murió allí a los 61 años.

**José Francisco de Iturzaeta (1788-1853)**, por su parte, era un calígrafo de gran prestigio. Concretamente, la Escuela Pública de Getaria lleva su nombre. Le gustaba la sencillez y sus obras se refieren a la letra cursiva o bastarda.


**Pepita Embil (1918-1994)** fue una cantante de zarzuela. Su marido fue Plácido Domingo Ferrer.

A continuación, la documentación relativa a los mismos, que se encontrará disponible en la biblioteca.


## Erreferentzia bibliografikoak



- **Vázquez, A. eta Holgado, I. (2020). Elkano, mundua beletan.**  
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1232538570>



- **Blanco Mellén, F. (2009). Domingo Bonechea Andonaegui y sus expediciones a Tahiti. Itsas memoria: revista de estudios marítimos del País Vasco, 6, 735-746.**  
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3296235>



■ **Iturzaeta, J. F. de (1876). *Arte de escribir la letra bastarda española*.**  
<https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/2360>

■ **RECOLECTA erabilia:**  
[https://buscador.recolecta.fecyt.es/buscador-recolecta?search\\_api\\_fulltext=Jose+Francisco+Iturzaeta+%26tipo-buscador=publicacion%26document-type=%26document-type-no=%26Buscar=Buscar](https://buscador.recolecta.fecyt.es/buscador-recolecta?search_api_fulltext=Jose+Francisco+Iturzaeta+%26tipo-buscador=publicacion%26document-type=%26document-type-no=%26Buscar=Buscar)




■ **Arzallus, M. (2010). *Cristóbal Balenciaga : la forja del maestro (1895-1936)*.**  
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/733967400>



■ **Garda, J. C. (1996). *Recordaran a Pepita Embil con su opereta y zarzuela. Reforma*.**  
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/5268824993>



 @EHUkultura

